

KOSTUEN EGITURA

Enpresa bat hasieratik hasi behar dugunez, inbertsio handi bat egin behar dugu. Hasteko, sozietate mugatua sortzeko kuota ordaindu behar dugu, 3.000 eurotakoa.

Gure enpresaren irabazi iturri nagusia produktu eta lehengaien banaketatik datorrenez, garraioa eskuratzeko inbertsioa egin behar dugu. Horretarako, leasing-a erabiliko dugu. Honela, "Renault Master" furgoneta eskuratzeko genuke, hilabeteko 357 euroko ordainketa eginez (<https://totalrenting.es/renewalt/master/>). Gure ustez furgoneta honekin nahikoa edukiko genuke, baina, behar izanez gero, "Opel Movano" bat eskuratzeko genuke alokairu bidez. Hau, link honen bidaz izango litzateke (<https://ruibalquilerdevehiculos.com/producto/opel-movano/>), eta eguneko 126,48 euro ordaindu beharko genituzke. Enpresa espero baino hobeto bazihoan, Wallapop bidez bigarren eskuko kamioi bat eskuratzeko genuke, 1000-5000 euroko inbertsioa eginez.

Jarraitzeko, biltegi bat eskuratu beharko genuke. Hau, produktuei gure onspena emateko eta hauek behar izanez gero biltegitratzeko erabiliko genuke. Guk, gure biltegia Astigarragako industrialdean kokatzeko genuke toki estrategiko bat delako: donostialdea erdian dago, eta hiriburutik iristeko erreztasun handiak ditu. Gainera, inguruko herrietatik (Lasarte, Andoain edota, pixka bat urrutiago joanda Irun) iristea oso erraza da, eta gainera grantziarekiko gertutasuna oso handia da. Hau 185 metro karratutakoa izango litzateke. Honen kostua hilabeteko 935 eurotakoa izango litzateke (<https://www.idealista.com/inmueble/95499431/>)

Banaketa kanala gu geu izango garenez, gure ibilgailuen erregaia ordaindu beharko genuke hasteko. Hau aurreikustea oso zaila da, azken finean ez dakigulako gauzak nola joango diren. Dena ondo joanda, eta bi ibilgailuak martxan edukita, gasolinan hilabeteko 700 bat euro gastatuko genituela aurreikusten dugu.

Honetaz gain, jendea lanean eduki behar dugu, noski, eta, beraz, soldatak ordaindu. Bi langile edukiko genituzke, eta, nahiz eta ez izan gauza ona, gutxieneko soldata ordainduko genieke. Azkenean, gure hasierako ekonomia oso kaxkarra izango litzateke, eta, errealistak izanik, ezin izango genieke soldata altu bat ordaindu. Hau, 3000 euroko gaztu bat izango litzateke hilabetero gutxi gora behera. Haiara batetan langileak banaketan jardungo zuten, eta baita biltegian ere. Aplikazioaren mantenua egiteko, enpresa pribatu bat kontratatuko genuke, eta honek, 200 bat euroko kostua izango luke.

Honetaz gain, telefonoa ere ordaindu beharko genuke. Hau, erosleekin kontaktuan mantentzeko egingo genuke, eta, 30 euro ordainduko genituzke hilabeteko, tarifa basiko baten medio.

Azkenik, biltegi bat edukiko genuke. Hau Astigarragan egongo litzateke kokaturik, eta hilabeteko alokairua 935 eurtakoa iznago litzateke. Hemen banaketak antolatujo genituzke, eta, furgonetetan ez duguna eduki ere. Gainera, matxuraren bat egogo balitz, bertan konponduko genituzke.